

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 55/2017, Foru Dekretua, azaroaren 28koa. Onartzea mugikortasun arazoak dituzten pertsonen ordezko garraio bide gisa taxi zerbitzua erabiltzeko laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak**

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailaren helburuetako batzuk dira bere eskumen esparruaren barruan gizarte zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta gauzatzea. Izan ere, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak, 1. artikuluan sailaren egitekoak eta eskumenak ezartzen ditu: Adinekoak, desgaitasuna, haurrak eta familia, oinarrizko gizarte zerbitzuak, prestazio ekonomikoak, eta ordenamendu juridikoan ezarritako gainerako guztiak. Halaber, 3. artikulua ezartzen du Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikita dagoela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE). Horren helburuak honako hauek dira: gizarte zerbitzuei lotutako jarduerak antolatzea, kudeatzea, ematea eta gauzatzea Arabako Lurralde Historikoan.

Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa arautzen duenak abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, 22. artikuluan arautzen duen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa garatzeko, Arabako Foru Aldundiari ematen dio garraio egokituko zerbitzua (Dekretuaren I. eranskineko 2.7.2.4 fitxan azaltzen dena) garatzeko eskumena.

Beste alde batetik, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak, honako helburu hauek dauzka, besteak beste: aukera berdintasunerako eta tratu berdinerako eskubidea bermatzea; desgaitasunen bat duten pertsonen beren eskubideak egiaz eta eraginkortasunez baliatzea, gainerako herritarren baldintza berdinetan, betiere autonomia pertsonala, irisgarritasun unibertsala, enplegurako sarbidea, komunitatean barneratzea eta bizimodu beregaina bermatuz, eta orobat bermatuz ezabatu egiten direla diskriminazio mota guztiak, guztia ere Espainiako Konstituzioaren 9.2., 10., 14. eta 49. artikuluekin, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin eta Espainiak sinatutako tratatu eta akordioekin bat etorritik.

Arau horiek behartu egiten dute herri agintaritzak desgaituei beren oinarrizko eskubideak benetan gauzatu ahal izateko beharrezko bitartekoak jartzera.

Desgaitasunaren arloko politiken zeharkakotasun printzipioaren arabera, Legearen 5. artikuluan xedatzen da aukera berdintasuna, diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsala bermatzeko neurri espezifikokoak, besteak beste, garraioen alorrean ere aplikatuko direla.

Legearen 68. artikulua adierazten duenez, laguntza osagarriak eta arau, irizpide eta jardunbiderik aldekoenak izan ahalko dira ekintza positiboko neurriak. Hauexek izan ahalko dira aukera berdintasuneko neurriak: dirulaguntzak, laguntza teknikoak, laguntza pertsonala, zerbitzu berezituak eta komunikaziorako laguntza eta zerbitzu osagarriak. Neurri horiek gutxienekoak izango dira; edonola ere, autonomia erkidegoek neurriak ezarri ahalko dituzte beren eskumen eremuan. Bereziki, herri administrazioek bermatuko dute laguntza eta dirulaguntza publikoek desgaitasunen bat duten pertsonen eta landa ingurunean bizi diren pertsona desgaituen berdintasunerako eskubidearen eraginkortasuna sustatzea.

Ildo horretakoak dira taxi zerbitzua garraiobide alternatibo modura erabiltzeko laguntzak: laguntza osagarriak dira, mugitzeko arazoak dituzten pertsoneri ematen zaizkienak garraio publikoa gainerako pertsonen bezala erabiltzeko eragozpenak edo zailtasunak konpentsatzeko.

Azkenik, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 16. artikuluan Foru Gobernu Kontseiluari ematen dio Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen esparruan dirulaguntzak emateko prozesua arautzen dituzten oinarriak onartzeko eskumena.

Xedapen hau bat dator Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak ezartzen dituen arautze egokiaren printzipioekin (foru dekretu horren bidez onarpena eman zitzaien xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei). Aginduzko txosten guztiak eskatu dira.

Horrenbestez, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Mugitzeko arazoak dituzten pertsoneri taxia garraiobide alternatibo modura erabiltzeko laguntzak emateko prozesua arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzea.

Bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Hirugarrena. ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 28a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua*

**M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO**

**ERANSKINA****MUGITZEKO ARAZOAK DITUZTEN PERTSONEI TAXIA GARRAIOBIDE  
ALTERNATIBO MODURA ERABILTZEKO LAGUNTZAK EMATEKO  
PROZESUA ARAUTZEN DITUZTEN OINARRI OROKORRAK****I. KAPITULUA**

## Arau orokorrak

**1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua**

Araudi honen bidez arautzen diren laguntzen xedea da mugitzeko eragozpen handien erruz ohiko garraio kolektiboa erabili ezin duten pertsonen bizi kalitatea hobetzea, eta beren autonomia, garapen pertsonala eta gizarteratzea sustatzea. Hori guztia lortzeko laguntza ekonomikoa emango da taxi zerbitzua garraio bide alternatibo modura erabiltzeak eragiten dituen gastuak ordaintzeko.

**2. artikulua. Printzipio orokorrak**

Ematen diren dirulaguntzak ondoko printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- Publikotasuna, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.
- Baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

**3. artikulua. Urteko deialdi publikoa**

Urtero ekitaldi bakoitzeko dirulaguntzen deialdi publikoa onartuko da. Deialdian, araudi honetan ezarritako guztia ez ezik, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, ezartzen duena zehaztuko da (testu honetan arautzen dena ez beste guztia).

**4. artikulua. Pertsona onuradunek bete beharrekoak**

1. Dirulaguntzaren onuraduna izango da funts publikoak eskuratzen dituenak; dirulaguntza eskuratzeko behar den legezko egoeran egon beharko da.

Artikulu honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten adingabeentzako laguntzen onuradunak hauexek izango dira: gurasoak edo adingabeen babesaren arloko eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean formalizatutako tutoretza edo harrera dela bide adingabearen ardura hartu duten pertsonak, berarekin bizi badira.

2. Laguntza hauen onuradun izan nahi duten pertsonak 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12. artikuluan ezartzen dituen baldintza orokorrak bete behar dituzte. Horrez gainera, araudi honetan eta urteko deialdian zehazten diren baldintzak ere bete beharko dituzte, eta araudian eta deialdian ezartzen diren inguruabarretan egon behar dira.

**5. artikulua. Familia unitatea**

1. Araudi honetan ezartzen denaren ondorioetarako, hauxe da familia unitatea:

a) Onuraduna adin nagusikoa bada eta ezkondua badago edo izatezko bikote bateko kidea bada, honako hauek daude familia unitatearen barruan:

- Laguntzaren onuraduna.
- Beraren ezkontidea, legez bananduta ez badago, edo izatezko bikoteko beste kidea.
- Adingabeko seme-alabak. Unitatean ez dira sartzen gurasoen baimenarekin beren kabuz bizi diren seme-alaba adingabeak.

– Adin nagusikoak izan arren epai bidez ezgaituta eta gurasoen ahalgoaren (ahalgo luzatu zein birgaitua) menpean dauden seme-alabak.

– Prestazioaren onuradunarekin bizi diren adin nagusiko seme-alabak, baldin eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzearen ondorengo enkaria aplikatzeko eskubidea ematen badute indarreko araudiaren arabera.

b) Onuraduna adin nagusikoa bada eta legez edo egitatez bananduta badago, edo dibortziatuta, edo ez bada izateko bikote bateko kidea bada, honako hauek daude familia unitatearen barruan:

– Laguntzaren onuraduna.

– Berarekin bizi diren adingabeko seme-alabak. Unitatean ez dira sartzen gurasoen baimenarekin beren kabuz bizi diren seme-alaba adingabeak.

– Adin nagusikoak izan arren epai bidez ezgaituta eta gurasoen ahalgoaren (ahalgo luzatu zein birgaitua) menpean dauden seme-alabak.

– Prestazioaren onuradunarekin bizi diren adin nagusiko seme-alabak, baldin eta PFEZaren aitortzearen ondorengo enkaria aplikatzeko eskubidea ematen badute indarreko araudiaren arabera.

c) Onuraduna adin nagusikoa bada eta PFEZaren aitortzearen ondorengo enkaria aplikatzeko eskubidea ematen badu:

– Laguntzaren onuraduna.

– Onuradunak sortzen duen ondorengo enkaria errenta aitortzearen aplikazioaren aurreko ahaideak.

d) Onuraduna adingabea bada:

– Laguntzaren onuraduna.

– Onuradunak sortzen duen ondorengo enkaria errenta aitortzearen aplikazioaren aurreko ahaideak.

– Beraren senide adingabeak. Unitatean ez dira sartzen gurasoen baimenarekin beren kabuz bizi diren senide adingabeak.

– Adin nagusikoak izan arren epai bidez ezgaituta eta gurasoen ahalgoaren (ahalgo luzatu zein birgaitua) menpean dauden senideak.

– Prestazioaren onuradunarekin bizi diren adin nagusiko senideak, baldin eta PFEZaren aitortzearen ondorengo enkaria aplikatzeko eskubidea ematen badiete gurasoei.

2. Familia unitate batean onuradunaz gainera ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukan beste pertsona bat bizi bada, familiako kideen kopuruari beste bat gehituko zaio deialdian ezartzen diren diru sarreren mugak aplikatzeko.

#### **6. artikulua. Errenta edo diru sarreren eta ondorengoaren konputua**

1. Onuraduna izateko eta, beraz, laguntza jasotzeko edo, bestela, kontzeptu honengatik onartu beharreko ehuneko finkatzeko, familia unitaterako urteko deialdian ezartzen diren muga ekonomikoak hartuko dira kontuan.

2. Familia unitatearen errenta edo sarrera konputagarriak urtean zehar kideen lanak eta kapitalak sortzen dituzten etekinak eta eskubideak izango dira, eta jasotzen dituzten gainerako guztiak ere bai.

Etekinak eta eskubideak baloratzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ematen duen informazioa hartuko da erreferentziazat. Horren ildotik, urtero, deialdiaren aurreko ekitaldian pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena aurkeztu duten pertsonen kasuan honako kontzeptu hauen batura izango da sarreraren zenbatekoa: lanaren etekin osoak; kapital higiezinaren etekin osoak; kapital higigarriaren etekin osoak; ondare irabazi garbiak; lanbide, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekin garbia; egotzitako lanaren errenta salbuetsiak, guztira.

Baliaezintasun handiagatik edo antzeko kontzeptu batengatik pentsioa jasotzen bada, hirugarren pertsona bati laguntzeko ehuneko 50eko osagarria ez da sartuko familia unitatearen sarreraren guztirako zenbatekoan.

3. Onuradunak ez badauka PFEZaren aitorpena aurkeztu beharrik, artikuluko honetako 2. idatz zatian zehazten diren kontzeptuetan egotzitako sarrerak hartuko dira kontuan.

4. Ohiko etxebizitza gorabehera, benetako etekinik sortzen ez duen ondasun higiezin baten jabe direnei haren katastro balioaren ehuneko 3 egotziko zaie bidezko zenbatekoan.

Aurreko puntuetan aipatzen ez diren ondasunen eta eskubideen etekinak ere egotziko dira.

## II. KAPITULUA Prozedura arauak

### 7. artikulua. Dirulaguntzak emateko araubidea

Dirulaguntza hauek lehia askean emango dira; funtsak eskaerak jaso ahala banatuko dira deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten artean, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

### 8. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Dekretu honetan arautzen diren laguntzen eskaerak urteko deialdian onartzen den eredian egin behar dira; eskaerarekin batera eskatzen den dokumentazio osagarria aurkeztu beharko da.

Eskaera eredia leku hauetan eskura daiteke: Ezinduen Balorazio eta Orientabide Zentroan, Arabako landa eremuko udalen oinarrizko gizarte zerbitzuen bulegoetan eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegoetan.

Gainera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak modu telematikoan eman ahal izango dizkie ereduak hala eskatzen duten pertsoneri, eta webgunetik ere deskargatu ahal izango dira: [www.araba.eus/ifbs](http://www.araba.eus/ifbs).

Aurreko lekuetan ez ezik eskaerak 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan ezartzen duen moduan ere aurkez daitezke.

2. Eskaerak aurkezteko epealdia urteko dirulaguntzen deialdia argitaratzen den egunean hasiko da zenbatzen eta bertan ezartzen den egunean amaituko da.

3. Eskaeran nahitaez zehaztu behar da jakinarazpenetarako egoitza. Pertsona eskatzailearen ardura izango da datuetan gertatzen diren aldaketa guztien berri ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, batik bat eskatzailearen egoitzaren datuetan gertatzen diren aldaketen berri.

4. Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar araudi honetan eta kasuan kasuko deialdiko oinarri berezietan ezartzen dena formalki eta berariaz onartzea.

5. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiaztatuko du epe barruan eta behar bezala aurkeztutako eskaerak osorik dauden eta behar diren agiri guztiak dituzten. Hala ez bada, eskaera aurkeztu duenari errekerimendua egingo zaio hamar egun baliodunetan aurkez ditzan falta diren datuak eta agiriak, eta ohartaraziko zaio eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egintzat joko dela ebazpen baten bidez, 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

**9. artikulua. Deialdiaren instrukzioa eta ebazpena**

1. Ezinduen Arloko Idazkaritza Teknikoko Zuzendariordetzak dauka prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena. Azaroaren 17ko 11/2016 Foru Arauak 22. artikuluan ezartzen duenaren arabera, instrukzio organoak ofizioz egingo ditu ebazpenerako behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak. Honako eskumen hauek edukiko ditu, batik bat:

a) Ebazteko beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eta dirulaguntzari buruzko arauetan eskatzen direnak eskatzea.

b) Ebazpen proposamena aurkeztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko organo eskudunari, ondo arrazoituta.

2. Zenbatekoaren arabera ebazpena emateko eskumena daukan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko organoak edukiko du araudi honen babesean izapidetzen diren espedienteak ebazteko eskumena, hala agintzen baitu Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak onartutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko arautegiak 25. artikuluan.

3. Ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek argitu behar ditu:

a) Laguntza ekonomikoa ematea bidezkoa den ala ez.

b) Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa.

c) Ematen den laguntzaren aldia.

4. Deialdi bakoitzean laguntza jasotzeko ezartzen diren baldintza guztiak betetzeak ez dakar berez eta besterik gabe laguntza eskuratzeko eskubidea.

5. Deialdi baten babespean laguntza bat emateak ez dakar berekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jarduketarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

**10. artikulua. Eskaerak ebazteko epealdia eta ebazpenak jakinarazteko epealdia**

1. Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaerak, eskatutako agiri guztiak dituztenak, aurkezten direnetik hiru hilabete pasatu baino lehen ebatzi behar dira. Aldi hori zenbatzeko ez da kontuan hartuko espedientea etenda dagoen denbora, baldin eta etenduraren arrazoiak eskatzaileari egotzi ahal bazaizkio.

2. Ebazpena emateko epealdian berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat jo behar da, 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 24.1 a) artikuluan eta azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 25.5 artikuluan ezartzen dutenarekin bat etorritik.

3. Ebazpena, laguntza eman edo ukatzen duena, 39/2015 Legeak 40 – 46 bitarteko artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritik jakinaraziko zaio eskatzaileari.

4. Ebazpenaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da 39/2015 Legeak 121 - 126 bitarteko artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorritik, ebazpena ematen duen organoaren arabera.

**11. artikulua. Laguntza ukatzeko arrazoiak**

Laguntza ukatzeko arrazoiak dira:

a) Laguntza emateko ezarritako baldintza orokor edo berezietako bat edo dekretu honetan, urteko deialdian eta ordenamendu juridikoan ezarritakoetako bat ez betetzea.

b) Eskaerako edo harekin baterako aurkeztutako dokumentazioko daturen bat egiazkoa ez izatea.

c) Laguntzak emateko aurrekontuan ezarritako kreditua agortzea.

**12. artikulua. Ebazpena aldatzea**

Laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, ebazpena aldatu ahal izango da, eta gerta liteke laguntza itzuli behar izatea.

**13. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

Foru dekretu honen itzalpean laguntzaren bat jasotzen dutenek honako hauek egin beharko dituzte:

- a) Laguntza eragin duen onuradunaren egoeran gertatzen diren aldaketa guztien berri eman.
- b) Laguntza eman duen erakundearen egiaztapen jarduketak onartu, bai eta Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta beste organo eskudun batzuek ekonomia-finantzen kontrolerako eta kudeaketarako egiten dituztenak ere.
- c) Gizarte Zerbitzuen Sailari eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari baimena eman eskatzailearen datu pertsonalak eta, behar den kasuetan, familia unitateko beste pertsona guztienak helburu hauetarako erabiltzeko, datu pertsonalen babesaren legerian ezartzen den bezala: estatistikak egiteko, zientzia ikerketarako eta zabalkunderako, eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen berezko eginkizunetarako.
- d) Araudi honek eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, ezartzen dituzten gainerako guztiak.

**III. KAPITULUA**

## Finantzaketa eta ordainketa

**14. artikulua. Laguntzen finantzaketa eta zenbatekoak finkatzea. Laguntzak finkatzeko irizpideak**

1. Urteko deialdian finkatuko dira deitzen diren laguntzetarako erabil daitekeen gehieneko zenbateko osoa, eta laguntzak aurrekontuko zer partidari egotziko zaien zehaztuko da, bai eta zenbat diru gehiago ezar daitekeen ere (ehunekoa deialdi egokian ezarriko da).
2. Aurrekontu ekitaldi bakoitzean ematen diren laguntzen guztirako kopurua ezin da izan aurrekontuan horretarako ezarritakoa baino gehiago.
3. Laguntzak baliagarri dagoen kreditua agortu arte emango dira, eskaera (ondo beteta) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erregistroan jaso den dataren eta orduaren arabera lehentasun ordenan.
4. Urteko deialdian zehaztuko da onuradun bakoitzari zenbat eman dakioken gehienez eta zenbat gutxienez.
5. Gehieneko zenbatekoa bi irizpide hauen arabera haztatuko da: onuradunaren familia unitatearen errenta (foru dekretu honetan ezartzen dena aplikatuz kalkulatu da) eta eskaera (ondo beteta, deialdian ezartzen den bezala) aurkezten den unea.

**15. artikulua. Ordaintzeko modua eta justifikazioa**

Onuradunei honela ordainduko zaie garraiorako laguntza: aurreordainketako txartel izenduna emango zaie eta bertan kargatuko da laguntzaren zenbatekoa, taxi zerbitzuan gastatu ahal izateko, garraiobide alternatibo modura.

Txartela pertsonala eta eskualdaezina izango da; onuradunaren izen-abizenak edukiko ditu. Hainbat ekitalditan erabili ahal izango da. Txartelak hiru teknologia edukiko ditu ordainketarako: zerrenda magnetikoa, EMV txipa eta Contacless. Gainera, kode berezia edukiko du taxi garraiorako bakarrik erabil ahal izateko.

Onuradunak Arabako Lurralde Historikoko taxi zerbitzua erabili ahala gastatuko du laguntzaren zenbatekoa, txartelaz ordainduz gero.

Ematen den kopurua txartela jasotzen den egunetik, edo ebazpenean adierazten den egunetik, ekitaldiko abenduaren 31ra arte erabili ahal izango da taxi zerbitzua ordaintzeko.

Txartela galtzen edo narriatzen bada edo norbaitek lapurtzen badu, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinarazi beharko zaio, eta honek ahalik azkarren emango dio ordezkia onuradunari, baina ez ditu ordainduko onuradunak bien bitartean taxi zerbitzua erabiltzeagatik egiten dituen gastuak.

#### **16. artikulua. Laguntzen metaketa eta bateraezintasunen araubidea**

Laguntza hauek bateragarriak izango dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein entitate pribatuak (Estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten beste dirulaguntza eta laguntza batzuekin.

Ematen den banako dirulaguntza baten zenbatekoa ezin da izan, bera bakarrik zein Estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza eta gainerako sarrerekin bat eginda, onuradunak taxi zerbitzuan egiten duen gastua baino gehiago.

#### **17. artikulua. Dirulaguntza itzultzea**

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak eta aplikatu beharreko gainerako arau guztiak ezartzen dituzten kasuetan onuradunak jasotako kopurua itzuli beharko du.

Onartutako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, II. tituluko I. kapituluan ezartzen duenarekin bat etorritik egingo da.

#### **18. artikulua. Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa**

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak behar diren egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu, eta berak nahi duen bezala, emandako dirulaguntzak zertan eta nola erabili diren argitzeko.

2. 11/2016 Foru Arauan xedatzen denarekin bat etorritik, datu faltsuak ematen badira edo datuak ezkututzen badira, dirulaguntza ebazpenean ezarritako xederako gabe beste baterako erabiltzen bada edo onuradunak kontrol jarduketak onartzen ez baditu edo eragozten baditu, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du edo, dagoeneko ordainduta badago, itzuli egin beharko du eta berarekin batera berandutze korrituak ordaindu beharko ditu. Bidegabe ordaindutako zenbatekoa onuradunak ez badu itzultzen edo ordainketan berandutzen bada, premia-mendu bidez eskatu ahal izango zaio.

#### **19. artikulua. Datuen babesa**

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak fitxategi automatizatu batean gordeko ditu onuradunen, beren ordezkarien edota familia unitateko kideen datu pertsonalak, laguntzak kudeatzeko lanak eta jarduketak egiteko bere eskumeneko esparruan. Fitxategia Datuak Babesteko Euskal Agentziari emango zaio datuak erabat babestuta egon daitezen.

Halaber, datu pertsonal horiek ez zaizkie emango hirugarrenei, legerian ezarritako kasuetan izan ezik.

2. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, datu pertsonalak babestekoan, aitortutako datuak eskuratu, ezeztatu, zuzendu eta aurka egiteko eskubideari buruzko galderak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulego orokorretara bidali behar dira: Alaba Jeneralaren kalea, 10 – 5.a, PK 01005 Gasteiz, Araba).

3. Aurreko 1. idatz zatian aipatzen diren pertsonen datu horiek fitxategian sartzeari uko egiten badio, laguntza ukatuko da.



Azken xedapenetatik lehenengoa. Ordezkatasun arauak

Foru dekretu honetan xedatzen dena honako hauetan ezartzen denaren mendean dago: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzen duena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako aurrekontuen araubide ekonomikoarena; 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; deialdia egiten denean indarrean dagoen aurrekontuen antolamenduari buruzko foru araua; aplika daitezkeen gainerako arauak.

Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean jartzea

Araudi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.